XEDAPEN OROKORRAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

3041

AGINDUA, 2016ko ekainaren 15ekoa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, zeinaren bidez sortzen eta aldatzen baitira Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Hezkuntza-arloak kudeatutako izaera pertsonaleko datuen zenbait fitxategi.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 1996ko irailaren 24ko Aginduak (1996ko urriaren 9ko EHAA, 195 zk.) arautu zituen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko datu pertsonalen fitxategi automatizatuak, bat etorriz une hartako indarreko araudiarekin. 1997ko urriaren 8ko Aginduaren bidez aldatu zen agindu hori.

Geroago, Saileko datu pertsonalen fitxategi automatizatuak arautzea izan zuten helburu agindu hauek ere: 2008ko ekainaren 8ko (2007ko uztailaren 4ko EHAA, 128. zk.), 2007ko urriaren 4ko (2007ko azaroaren 20ko EHAA, 223. zk.), 2008ko uztailaren 7ko (2008ko abuztuaren 8ko EHAA, 150. zk.), 2008ko uztailaren 8ko (2008ko abuztuaren 12ko EHAA, 152. zk.) eta 2009ko ekainaren 26ko (2009ko abuztuaren 28ko EHAA, 165. zk.) Aginduak.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko datu pertsonalen fitxategiak arautzen dituen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2010eko urriaren 4ko beste agindu baten bidez (2010eko azaroaren 5eko EHAA, 213. zk.) baliogabetu ziren aurreko agindu guztiak.

Era berean, azken agindu horrek, 2010eko urriaren 4koak, hainbat zuzenketa eta aldaketa izan zituen (2011ko otsailaren 3ko EHAA, 23. zk.; 2011ko maiatzaren 24ko EHAA, 97. zk.; 2011ko urriaren 20ko EHAA, 200. zk.; eta 2012ko uztailaren 2ko EHAA, 128. zk.).

Duela gutxi zenbait jarduketa berri jarri dira martxan, eta, horiek gauzatzeko ere, beharrezkoa da fitxategi pertsonalak arautzea, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak dagozkion kudeaketa-zereginak gauzatu ahal izateko.

Beraz, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Legean, Datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta datuak babesteko euskal bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legean xedatutakoa betetzeko, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen bidez sortzen eta aldatzen dira Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Hezkuntza-arloak kudeatutako izaera pertsonaleko datuen zenbait fitxategi.

2. artikulua.– Fitxategiak sortzea.

Datu pertsonalen gaineko fitxategi hauek sortzea, agindu honen I. eranskinean zerrendatuko direnak:

– 22. fitxategia: Diru-laguntzak arte plastikoko ikastetxeei. Arduraduna: Ikastetxeen Zuzendaritza

– 42. fitxategia: Unibertsitateaz kanpoko atzerriko ikasketak homologatzea eta baliozkotzea. Arduraduna: Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza.

– 43. fitxategia: Araubide bereziko irakaskuntzen amaierako proiektuak. Arduraduna: Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza.

– 10. fitxategia: Bizialdi osoko ikaskuntza. Arduraduna: Heziketa eta Ikaskuntzako Zuzendaritza.

– 11. fitxategia: Lanbide-heziketako ikasleen kudeaketa gradu, modalitate eta erregimen ezberdinetan. Arduraduna: Heziketa eta Ikaskuntzako Zuzendaritza.

3. artikulua.– Fitxategiak aldatzea.

Datu pertsonalen fitxategi hau aldatzen da: «Ikastetxeen Zuzendaritza», 21. fitxategia, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2010eko urriaren 4ko Aginduarena; agindu honen II. eranskinean jasotzen da bertan ezarritako baldintzen arabera.

4. artikulua.– Erregulazioa.

Agindu honetan aipatu fitxategiak arautuko dira Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko datu pertsonalen fitxategiak arautzen dituen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2010eko urriaren 4ko Aginduan xedatuaren arabera eta bakoitzarentzat zehaztutako xedapen orokorren eta jarraibideen arabera, eta, dena den, aplikagarri zaizkien goragoko mailako legezko eta erregelamenduzko arauen mende egongo dira.

5. artikulua.– Jakinarazpena.

Datuak Babesteko Agentziari jakinaraziko zaizkio agindu honetan zerrendatutako fitxategiak, horrek Datuak Babesteko Erregistro Nagusian sar ditzan. Horretarako, xedapen honen kopia bat bidaliko da Agentziara, eta, kopia bidaltzeko, Agentziak prestatutako eredu normalizatua erabiliko da.

XEDAPEN GEHIAGARRIA.– Gastu publikoa ez igotzea.

Agindu hau, datu pertsonaleko fitxategi berriak sortzeari dagokionez batez ere, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailean dagoen baliabide pertsonal eta materialen arabera aplikatuko da, eta ezingo du inolaz ere gastu publikoa handitu.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko ekainaren 15a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

I. ERANSKINA

IKASTETXEEN ZUZENDARITZA

22. FITXATEGIA

IZENA:
Diru-laguntzak arte plastikoko ikastetxeei

FITXATEGIAREN ARDURADUN DEN ORGANOA:
Ikastetxeen Zuzendaritza

ZEIN ZERBITZU EDO UNITATEREN AURREAN BALIA DAITEKEEN DATUAK ESKURATZEKO, ZUZENTZEKO, EZEZTATZEKO EDO HORIEN AURKA EGITEKO ESKUBIDEEZ:
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Ikastetxeen Zuzendaritza (Donostia 1, 01010 Vitoria-Gasteiz)

SEGURTASUN-MAILA:
Oinarrizkoa

HELBURUA ETA ERABILERAK:
Diru-laguntzak Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide-irakaskuntzako ikastetxe baimenduentzako

DATUEN JATORRIA:
Interesduna bera edo haren legezko ordezkaria

ZEIN PERTSONA EDO KOLEKTIBORENGANDIK LORTU NAHI DIREN DATU PERTSONAK, EDO PERTSONA EDO KOLEKTIBO HORIETATIK NORK EMAN BEHAR DITUEN DATUAK NAHITAEZ:
Ikastetxearen ordezkaria edo titularra
Ikasleen zerrenda
Ikastetxeko irakasleen zerrenda

DATUAK JASOTZEKO PROZEDURA:
Transmisio telematiko/Internet bidezko inprimakiak edo posta arrunta

TRATAMENDU-SISTEMA:
Partez automatizatua

FITXATEGIAREN OINARRIZKO EGITURA:
Identifikazio-datuak: izen-abizenak, NAN/IFZ
Enpleguaren xehetasun-datuak
Ekonomia- eta finantza-datuak

DATUAK JAKINARAZTEA:
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Kudeaketa Ekonomikoaren Zuzendaritzako Aurrekontu eta Kontrol Ekonomikoko Zerbitzua
Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Saila

DATUEN NAZIOARTEKO TRANSFERENTZIA:
Ez da halakorik hauteman

HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARITZA

42. FITXATEGIA

IZENA:
Unibertsitateaz kanpoko atzerriko ikasketak homologatzea eta baliozkotzea

FITXATEGIAREN ARDURADUN DEN ORGANOA:
Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza

ZEIN ZERBITZU EDO UNITATEREN AURREAN BALIA DAITEKEEN DATUAK ESKURATZEKO, ZUZENTZEKO, EZEZTATZEKO EDO HORIEN AURKA EGITEKO ESKUBIDEEZ:
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza (Donostia 1, 01010 Vitoria-Gasteiz)

SEGURTASUN-MAILA:
Oinarrizkoa

HELBURUA ETA AURREIKUSITAKO ERABILERAK:
Unibertsitateaz kanpoko atzerriko ikasketak homologazio- edo baliozkotze-kredentzialak izapidetzea

DATUEN JATORRIA:
Interesduna bera edo haren legezko ordezkaria

ZEIN PERTSONA EDO KOLEKTIBORENGANDIK LORTU NAHI DIREN DATU PERTSONAK, EDO PERTSONA EDO KOLEKTIBO HORIETATIK NORK EMAN BEHAR DITUEN DATUAK NAHITAEZ:
Ikasleak

DATUAK JASOTZEKO PROZEDURA:
Inprimakiak

TRATAMENDU-SISTEMA:
Automatizatua

FITXATEGIAREN OINARRIZKO EGITURA:
Identifikazio-datuak: NAN/IFZ, izen-abizenak
Ezaugarri pertsonalei buruzko datuak
Ikasketei eta lanbideari buruzko datuak

DATUAK JAKINARAZTEA:
Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa

DATUEN NAZIOARTEKO TRANSFERENTZIA:
Ez da halakorik hauteman

43. FITXATEGIA

IZENA:
Araubide Bereziko Irakaskuntzen amaierako proiektuak.

FITXATEGIAREN ARDURADUN DEN ORGANOA:
Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza

ZEIN ZERBITZU EDO UNITATEREN AURREAN BALIA DAITEKEEN DATUAK ESKURATZEKO, ZUZENTZEKO, EZEZTATZEKO EDO HORIEN AURKA EGITEKO ESKUBIDEEZ:
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza (Donostia 1, 01010 Vitoria-Gasteiz)

SEGURTASUN-MAILA:
Oinarrizkoa

HELBURUA ETA ERABILERAK:
Arte- eta kirol-ikasketen amaierako proiektuak artxibatzea

DATUEN JATORRIA:
Interesduna bera

ZEIN PERTSONA EDO KOLEKTIBORENGANDIK LORTU NAHI DIREN DATU PERTSONALAK, EDO PERTSONA EDO KOLEKTIBO HORIETATIK NORK EMAN BEHAR DITUEN DATUAK NAHITAEZ:
Ikasleak

DATUAK JASOTZEKO PROZEDURA:
Inprimakiak

TRATAMENDU-SISTEMA:
Automatizatua

FITXATEGIAREN OINARRIZKO EGITURA:
Identifikaziorako datuak: NAN/IFZ, izen-abizenak
Azken proiektuari buruzko datuak (titulua, espezialitatea, etab.)

DATUAK JAKINARAZTEA:
Ez dago horrelakorik

DATUEN NAZIOARTEKO TRANSFERENTZIA:
Ez da halakorik hauteman

HEZIKETA ETA IKASKUNTZAKO ZUZENDARITZA

10. FITXATEGIA

IZENA:
Bizialdi osoko ikaskuntza

FITXATEGIAREN ARDURADUN DEN ORGANOA:
Heziketa eta Ikaskuntzako Zuzendaritza

ZEIN ZERBITZU EDO UNITATEREN AURREAN BALIA DAITEKEEN DATUAK ESKURATZEKO, ZUZENTZEKO, EZEZTATZEKO EDO HORIEN AURKA EGITEKO ESKUBIDEEZ:
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Heziketa eta Ikaskuntzako Zuzendaritza (Donostia 1, 01010 Vitoria-Gasteiz)

SEGURTASUN-MAILA:
Handia

HELBURUA ETA ERABILERAK:
Lanbide-kalifikazioei buruzko informazioa, orientazioa eta aholkularitza eskatzen duten pertsonen beharrezko datuak izatea, esku-hartzaileen edo interesdunen identifikazioarekin, baita bizialdi osoko ikaskuntzarekin zerikusia duten eta eskualdean edo ingurune irisgarrienean abian diren jarduketei buruzko informazioa eta aholkularitza ere.

DATUEN JATORRIA:
Lanbide-kalifikazioei buruzko eta bizialdi osoko ikaskuntzarekin zerikusia duten eta abian diren jarduketei buruzko informazio, orientazio eta aholkularitza eske, informazio- eta orientazio-zerbitzuetara jotzen duten interesdunak edo horien legezko ordezkariak, baita Ikaskuntzako bitartekaritza-zerbitzuetara ere.
Hezkuntza Saila
Ikastetxeen aholkularitza- eta ebaluazio-txostenak
Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua (prestakuntza-ekintzak)
Poliziaren Zuzendaritza Nagusia – NAN
Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa – Titulazioak

ZEIN PERTSONA EDO KOLEKTIBORENGANDIK LORTU NAHI DIREN DATU PERTSONAK, EDO PERTSONA EDO KOLEKTIBO HORIETATIK NORK EMAN BEHAR DITUEN DATUAK NAHITAEZ:
Ikasleak edo haien legezko ordezkariak Familia-unitateko kideak
Ikastetxeen, irakasleen, prestatzaileen, aholkularien, ebaluatzaileen eta informatzaileen ordezkariak.

DATUAK JASOTZEKO PROZEDURA:
Inprimakiak, kupoiak.
Erantsitako dokumentazioa
Posta arrunta, faxa
Transmisio telematikoa/Interneta

TRATAMENDU-SISTEMA:
Partez automatizatua

FITXATEGIAREN OINARRIZKO EGITURA:
Identifikazio-datuak: izen-abizenak, telefonoa, NAN/IFZ, izenpea/hatz-marka, posta helbidea eta elektronikoa, telefonoa, irudia/ahotsa, izenpea/hatz-marka

Bereziki babestutako datuak: osasuna –ezintasuna–, genero-biolentzia
Ezaugarri pertsonalei buruzko datuak
Gizarte-inguruabarrei buruzko datuak
Ikasketei eta lanbideari buruzko datuak
Enpleguaren xehetasun-datuak
Ekonomia- eta finantza-datuak

DATUAK JAKINARAZTEA:
Berritzeguneak
Ikastetxeak
Lanbide-Enpleguaren Euskal Zerbitzua

DATUEN NAZIOARTEKO TRANSFERENTZIA:
Ez da halakorik hauteman

11. FITXATEGIA

IZENA:
Lanbide-heziketako ikasleen kudeaketa gradu, modalitate eta erregimen ezberdinetan

FITXATEGIAREN ARDURADUN DEN ORGANOA:
Heziketa eta Ikaskuntzako Zuzendaritza

ZEIN ZERBITZU EDO UNITATEREN AURREAN BALIA DAITEKEEN DATUAK ESKURATZEKO, ZUZENTZEKO, EZEZTATZEKO EDO HORIEN AURKA EGITEKO ESKUBIDEEZ:
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Heziketa eta Ikaskuntzako Zuzendaritza (Donostia 1, 01010 Vitoria-Gasteiz)

SEGURTASUN-MAILA:
Handia

HELBURUA ETA ERABILERAK:
Lanbide-heziketako ikasleak onartzea gradu eta modalitate ezberdinetan

DATUEN JATORRIA:
Interesduna bera edo haren legezko ordezkaria
Ikastetxeak
Herri-administrazioak
Lanbide–Enpleguaren Euskal Zerbitzua

ZEIN PERTSONA EDO KOLEKTIBORENGANDIK LORTU NAHI DIREN DATU PERTSONAK, EDO PERTSONA EDO KOLEKTIBO HORIETATIK NORK EMAN BEHAR DITUEN DATUAK NAHITAEZ:
Ikasleak edo haien legezko ordezkariak Familia-unitateko kideak
Ikastetxeen ordezkariak, irakasleak, erakundeetako langileak

DATUAK JASOTZEKO PROZEDURA:
Inprimakiak, kupoiak.
Erantsitako dokumentazioa.
Posta arrunta, bertaratuta, faxa
Transmisio telematikoa/Interneta

TRATAMENDU-SISTEMA:
Partez automatizatua

FITXATEGIAREN OINARRIZKO EGITURA:

Identifikazio-datuak: izen-abizenak, telefonoa, NAN/IFZ, izenpea/hatz-marka, posta helbidea eta elektronikoa, telefonoa, irudia/ahotsa, izenpea/hatz-marka, erregistro pertsonaleko zk.

Bereziki babestutako datuak: osasuna –ezintasuna–, genero-biolentzia

Ezaugarri pertsonalei buruzko datuak

Gizarte-inguruabarrei buruzko datuak

Ikasketei eta lanbideari buruzko datuak

Enpleguaren xehetasun-datuak

Ekonomia- eta finantza-datuak

DATUAK JAKINARAZTEA:

Berritzeguneak

Ikastetxeak

Lanbide–Enpleguaren Euskal Zerbitzua

Dagokion Foru Ogasuna

DATUEN NAZIOARTEKO TRANSFERENTZIA:

Ez da halakorik hauteman

II. ERANSKINA

Soilik islatzen dira aldatzen diren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2010eko urriaren 4ko Aginduaren bidez –Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko datu pertsonalen fitxategi automatizatu zenbait arautzekoa– sortutako fitxategiaren hasierako konfigurazioaren atalak, hain zuzen ere, Ikastetxeen Zuzendaritzei buruzko 21. zerrendari dagozkionak, eta gainontzekoa ez da aldatzen.

IKASTETXEEN ZUZENDARITZA

21. FITXATEGIA Ikastetxeetako bideozaintza

– «Helburua eta aurreikusitako erabilerak» atalaren idazkera aldatzen da, eta honela idatzia geratzen:

Ikastetxearen segurtasuna hobetzea.

– «Datuen jatorria» atalaren idazkera aldatzen da, eta honela idatzia geratzen:

Interesdunaren beraren bidez jasotzen dira datuak, euskarri informatikoan/magnetikoan kamerak erabiliz. Fitxategiaren ardura duen zuzendaritzak badu bideozaintza-sistema duten ikastetxeen zerrenda bat.